

Kanalak

Kasu honetan bezeroak euren artean eta baita euren zerbitzura jarriko dugun telefono batekin kontaktuan jarri ahal izango dira app-a eta webgunearen bitartez, beraz, bi metodo ezberdin jarriko ditugu interneten bidez irekiko ditugun txatei esker, eta baita telefonoz deitzeko aukera izango dute, beraz beste aukera bat da mugikorraren bitartez kontaktuan jartzea. App hau play storren eta App storren egongo da noski, jende guztia erabiltzeko ahalmena izateko.

Arazo baten bat gertatzen bada, mugikorretik deitu eta pertsona bat egongo da 24h-ko arazo larriak konpontzeko prest. Hau guztiarekin esan nahi duguna, ez dela makinarik ez inolako gauza horrelakorik egongo. Beti egongo gara prest gure bezeroekin hitz egiteko eta haien arazoak konpontzeko helburuarekin. Gure bezeroak ondo tratatuko ditugu eta horrela baliabide horren bitartez, beste bezero desberdinak erakarriko ditugu gure aplikazioa gero eta gehiago zabaltzeko eta arrakasta handiagoa izateko.

